




EAEko esportazioak %5,1 gutxitu ziren 2024an

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urtariletik abendura bitartean. Milioika euro




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu dituen behin-behineko azken datuen arabera, **EAetik atzerrira bidalitako esportazioen balioa 30.967 milioi eurokoa izan zen 2024. urtean**. Balio hori aurreko urtekoa baino %5,1 txikiagoa da, eta produktu ez-energetikoen (-%5,4) eta energetikoen (-%1,4) bilakaera negatiboak eragin du.

Turismoen matrikulazioak areagotu dira

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarila




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) berriki argitaratutako datuen arabera, **urtarrilean 2.325 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %7,4 gehiago**. Beraz, jada hiru urte jarraian dira gorantz egiten, nahiz eta erregistroak pandemiaren aurreko urteetan lortutakoak baino nabarmen txikiagoak diren.



Etxebizitzaren gaineko hipotekak %10,3 hazi dira

Etxebizitzaren gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko urtariletik abendura bitartean




Iturria: INE.

2024an, etxebizitzaren gaineko hipotekaren kopurua %10,3 igo zen aurreko urtearekin alderatuta, eta 21.000 milaileu berri baino gehiago sinatu ziren. Bilakaera horretan erabakigarria izan da finantzaketa baldintzen hobekuntza, Euriborren behera egin duelako, urte amaieran %2,5aren azpitik baitzegoen.

Urtarrilean, hoteletako gaualdiak gehitu egin ziren

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko urtarila. Milakoak



Iturria: Eustat.

Urtarrilean, EAEko hotel establezimenduetan igaro ziren gaualdien kopurua %7,0 gehitu zen aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Guztira, erregistratutako gaualdien kopurua 400.000etara hurbildu zen, hau da, urtaril batean inoiz jaso den kopururik handiena baita.